2. mailako <u>Hirigintza: sarrera</u>

PLAN PARTZIALA

irailerako ariketa

Beltzez, Plan Partziala garatzeko eremua

Bergarako Errekaldeko lurzoru urbanizagarrian dagoen 13-208 partzelan (Katastroaren arabera 10.921 m^2ko azalerakoa) **Plan Partzial** bat landuko du ikasle bakoitzak (banaka), honakoa betez:

- Etxebizitza-erabilera izango da nagusi.
- Ekipamendu publikoak ez diren eraikinen lurzoruaren mailaren gaineko eraikigarritasuna: **<u>0,7 m^2/m^2</u>**koa izango da.
- Ekipamendu publiko bat aurreikusiko da (zehaztu erabilera eta neurria: eredu bat erabil daiteke).
- Kaleetaz aparteko espazio libre bat (plaza edo berdegunea), gutxienez eremuaren azaleraren %15ekoa. Planoetan era argian mugatua agertuko da.
- Etxebizitza-tipoa(k) azaldu beharko dira (eredu bat edo batzuk erabil daitezke).
- Inguruko eta proposatutako antolakuntzen komunikazio-sareen azterketa egin beharko da. Posible da eremuaren inguruko partzelei bide berriak irekitzeko desjabetzeak proposatzea, baldin eta arrazoiturik badago.
- Hirigintza-parametroak eman beharko dira (eraikigarritasuna, betetze edo okupazioa, eta dentsitatea).

Eskatutakoa azaltzeko beharrezkoak diren planoak emango dira (kokapen-planoa, oinplanoak, sekzioak, 3Dak eta taulak), paperean din A-1 formatuan eta Cdan PDFetan. Gogoratu hobe dela plano gutxi baina osatuak egitea.

Iraileko azterketaren hasieran emango da bukatua.

Ariketa ematen ez duenak ezin izango du azterketa egin.

Donostian, 2009ko uztailaren 8an

Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño